




EAEn bizi diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonen % 63,9k administrazio elektronikoa erabili zuen 2023an

1. e-Administrazioa enpresetan
2. e-Administrazioa lehen sektorean
3. e-Administrazioa administrazio publikoetan
4. e-Administrazioa eta pertsonak
5. Glosariorako eta beste estatistiketarako estekak

1. e-Administrazioa enpresetan

EAEko establezimenduen ia % 65k lortu du prozedura elektronikoa bat administrazio elektronikoaren bidez erabat izapidetzea

G.1.a. Azken urtean administrazio elektronikoa erabili duten establezimenduak.EAE. 2000-2022.%



EAEko ia establezimendu guztiek, % 97,7k (guztira 155.550 establezimendu), lehen sektorekoak, etxeko-zerbitzukoak eta lurraldez kanpoko erakundeetakoak izan ezik, administrazio elektronikoa erabili zuten 2022an¹, zuzenean edo

¹ Administrazio Elektronikoaren erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita.

hirugarrenen bidez.² 10 lanpostu edo gehiagokoen kasuan % 98,5 izan ziren, 2021ean baino ehuneko puntu bat gehiago Eustaten datuen arabera. Erabilera edo elkarrekintza askotarikoa izan da: informazioa eskuratzetik inprimakiak deskargatzera edo prozedurak edo izapideak oso-osorik teleizapidetzera.

Eskuragarri ditugun azken 23 urteetako datuak kontuan izanda hainbat aldi bereiz daitezke:


2000tik 2008ra bitartean, enpresek administrazio elektronikoa geroz eta gehiago erabiltzera jo zuten, hots, zortzi aldiz baino pixka bat gehiago handitu zen erabilera epe horretan.

2009tik 2013ra, krisi ekonomiko betean, administrazioekiko Internet bidezko interakzioaren hazkundera apaldu egin zen.

2015 eta 2016ko datuek haustura erakusten dute 2000-2014 seriearekin alderatuta; izan ere, administrazio elektronikoa erabili arren, Interneteko konexiorik ez daukaten establezimenduak ere zenbatzeari lotutako metodologia-aldaketa egin zen.

2017tik administrazio elektronikoaren erabilera % 90etik gorakoa izan da establezimenduen artean, hala, hazkuntza maldak apaltzerako joera ageri du % 100eko baliotik hurbilago baitago. Gainera, establezimenduen tamainen araberrako balioen arteko ezberdintasuna murriztuz joan da azkenengo urteetan.


G.2 Azken urtean administrazio elektronikoa erabili duten establezimenduen ehunekoaren urte arteko aldakuntzaren bilakaera. EAE. 2000-2022. p.p.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

²Establezimendu batzuek zuzenean egiten zituzten izapideak eta prozedurak edo jasotzen zuten informazioa; beste batzuek, aldiz, ekintza horiek hirugarrenen bidez egiten zituzten, 2016ko bilketan azken horiek ere jaso ziren. 2017koan (2016ko emaitzak), Internet eduki gabe administrazio elektronikoa erabiltzen zutenak sartu ziren.

G.3 Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2022. %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Lau establezimendutik hiruk baino gehiagok, % 77,3k, beste erakunde batzuk behar dituzte administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko.

Kontuan izan behar da enpresek eta beren establezimenduek administrazio-kudeaketan zati bat zuzenean egin dezaketela eta, aldi berean, hirugarrenengana jo dezaketela beste kudeaketa batzuk gauzatzeko.

Proportzio hori 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduetan % 62,1ra baino ez da heltzen. Azken urteotan izapideak hirugarrenen bidez egiteko joerak gora egin du, konkretuki, 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduek hirugarren baten zerbitzuak erabiltzen zituzten establezimenduen ehunekoa 3,8 puntu igo da azken urtean.

G.11 Internet duten establezimenduak, administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2022. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizaritari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa


10 lanpostu edo gehiagoko enpresen % 88,1ek zuzenean izapidetzen du, eta establezimendu guztietatik 10etik ia seik, hau da, % 59,6k.

Ziurrenik, erakunde horiek digitalizazio aldia baino lehen hirugarrenen bitartez egiten zituzten kudeaketak, gaur egun, nahiz eta elektronikoki izan, hirugarrenen bitartez egiten jarraitzen dute, establezimenduaren tamaina eta ahalmen informatikoak edozein izanda ere.

2022an establezimenduen % 82,4k erabili zuen bide elektronikoa BEZaren aitortpenak egiteko.

2021 eta 2022 artean bide elektronikoz egindako BEZaren aitortpenak ehuneko 3,6 puntu egin du gora. Halaber, Gizarte-kotizazioena ia ehuneko hiru puntu igo da eta Sozietate-Zergaren aitortpena ehuneko 0,5 puntu.

G.4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. EAE. 2011, 2015, 2020-2022. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Administrazio elektronikoa erabiltzen den sofistikazio-mailari dagokionez, establezimenduen % 64,8k gutxienez prozedura elektronikoa bat osorik izapidetzea lortu du.

2021arekin alderatuz ehuneko 4,6 puntu egin du gora. Bete diren formularioak administrazioei elektronikoki itzultzeko aukera % 66,4koa da. 2021tik 2022ra bitartean, inprimakiak eta formularioak lortzearen izapidetza ehuneko 2,8 puntu igo da, eta 3,1 informazioa bilatzearena.

2016tik 2022ra, administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen ehunekoa % 87,8tik % 97,7ra igo da.

Erakundearen ranking-aren buruan foru aldundiak daude (% 89,6) eta gero, Administrazio zentrala (% 77,4) eta Eusko Jaurlaritza (% 68,2).

Kontuan hartu behar da establezimendu guztiak ez daudela behartuta administrazio guztiekin izapideak egitera eta, kasu batzuetan, enpresa bereko beste establezimendu batzuek egiten dituztela.

Jakina, foru aldundien eta Administrazio zentralaren Zergak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko nahitaezko izapide elektronikoen garrantzia nabarmena da.

Aurreko urtetik hona, administrazio mota guztiek egin dute gora. Eusko Jaurlaritzarekin elektronikoki harremanetan dauden establezimenduen



proportzioak hazkunderik handiena sumatu du (ehuneko 4,6 puntu), Europar Batasunarekin eta toki-erakundeekin elektronikoki harremanetan dauden establezimenduen proportzioak, aldiz, izan du hazkunderik motelena (ehuneko 2,5 puntu).

Administrazio zentrala 10 enplegu edo gehiagoko rankingaren buruan dago (administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen % 90,0), nahiz eta 2021arekin alderatuta, ehuneko 1,6 puntu egin duen behera. Bigarren postuan foru aldundiak daude, % 86,6arekin. Eusko Jaurlaritzarekin, ostera, sei establezimendutik bost jartzen dira elektronikoki harremanetan, % 83,2a hain zuzen ere.

Europar Batasunak ere mailari eutsi dio, izan ere, 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen % 23,1ek administrazio elektronikoa erabiltzen du berarekin harremanetan jartzeko.



TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapide motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012-2022. %


	Guztira												Eusko Jaurlaritza												Foru aldundiak											
	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022			
	HERR ADMINISTRATZIOA ERABILI DUTE	50,3	54,5	57,0	71,8	87,8	91,0	93,0	93,5	92,1	94,3	97,7	33,3	36,2	36,5	38,7	41,8	48,7	54,2	51,3	59,1	63,6	68,2	43,4	45,1	46,8	64,8	73,4	83,5	84,1	86,6	83,8	87,1	89,6		
Informazioa lortzeko	43,8	44,3	46,5	52,2	58,0	66,5	70,0	68,2	69,5	71,1	74,0	31,0	32,9	33,2	31,3	37,0	41,2	42,6	41,6	44,4	47,3	49,6	35,5	36,7	37,7	43,2	47,2	50,9	56,7	56,0	55,7	57,8	60,7			
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	40,7	42,5	44,7	53,2	57,1	65,1	67,4	64,7	67,2	68,0	70,6	26,1	27,5	27,9	29,5	33,6	36,7	36,7	34,3	40,7	43,0	44,7	33,1	35,5	35,5	43,2	46,3	51,4	54,9	53,4	53,3	55,2	57,5			
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	33,9	31,3	33,7	42,7	45,3	55,4	57,5	56,8	58,0	63,1	66,4	19,9	19,8	20,3	22,3	23,8	29,8	30,8	30,8	34,9	42,4	45,6	27,2	26,0	26,2	34,8	35,8	42,1	46,5	45,8	45,8	48,1	51,0			
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	22,5	20,3	23,5	36,4	37,3	50,3	55,2	52,1	56,2	60,3	64,8	11,8	11,2	12,6	16,7	18,7	25,2	31,8	26,6	32,1	37,9	41,5	16,5	14,4	16,6	27,6	26,8	36,4	39,3	38,2	41,5	45,0	48,5			
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	5,6	5,2	5,3	10,0	9,8	15,8	17,3	19,3	19,1	20,2	19,5	2,8	2,9	4,4	4,5	7,3	8,0	9,8	10,2	10,6	10,8	3,5	3,0	3,1	6,5	5,5	8,7	9,3	10,2	10,5	11,3	10,7				
Langileen pertsonen kottizazio sozialak adierazteko	27,1	28,4	28,2	44,2	56,7	57,5	61,1	64,6	65,6	67,7	70,5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0,0			
Sozialtate-Zergaren adierazpenarako	30,6	29,5	30,2	45,4	62,9	57,1	56,9	61,0	57,3	61,3	61,7	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0,0	26,2	25,2	25,5	40,3	50,3	49,3	50,0	55,7	50,0	55,2	55,9			
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenarako	34,4	34,7	34,2	55,0	72,8	73,3	74,4	79,4	78,1	79,0	82,4	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0,0	29,6	28,2	28,7	51,0	58,4	67,7	67,9	73,9	70,9	73,5	76,7			
Zerga bereziak eta aduana-eskubideak adierazteko	4,6	4,9	5,4	9,3	9,2	11,6	12,7	11,5	12,4	12,8	13,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	1,8	1,8	1,7	2,9	6,1	7,5	10,3	11,4	14,4	12,2	12,2	0,4	0,4	0,4	0,8	0,6	3,0	1,3	7,0	10,6	7,7	8,1	1,2	0,9	1,0	1,6	4,6	3,6	7,0	3,5	3,4	3,6	3,7			

TAB. 4.b Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapide motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2022. % (Jarraip.)


	Toki-erakundeak												Administrazio Zentraia												Europar Batasuna eta beste batzuk											
	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022			
	HERR ADMINISTRATZIOA ERABILI DUTE	21,6	22,3	21,7	21,0	27,5	26,5	29,7	27,9	32,1	33,4	33,4	35,9	39,6	39,2	51,7	67,9	67,6	72,3	71,8	71,6	73,8	77,4	4,9	6,2	7,4	7,2	8,8	8,8	9,8	10,4	8,3	9,9	11,4		
Informazioa lortzeko	20,0	20,7	20,3	18,2	24,7	22,6	25,8	22,5	25,6	27,5	27,5	17,3	21,2	22,4	20,6	24,4	22,8	25,8	28,2	27,2	26,2	31,2	4,4	4,0	4,7	5,7	5,6	6,9	7,0	7,5	5,6	6,5	9,4			
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	15,6	15,8	15,8	14,3	21,0	18,0	20,3	19,1	22,3	22,6	22,6	13,5	17,2	18,3	17,4	21,5	19,6	20,5	21,4	21,7	22,3	26,6	2,4	2,6	3,5	3,2	3,5	4,3	4,6	5,1	3,4	3,8	6,5			
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	10,0	8,9	9,3	10,2	12,7	13,7	15,8	16,2	18,5	20,2	20,2	10,9	13,2	14,2	14,3	17,2	16,5	18,5	19,2	18,8	20,3	23,2	1,8	1,9	2,7	2,0	2,8	3,2	3,4	3,9	2,7	3,3	5,8			
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	4,9	4,5	4,9	6,9	8,8	9,8	11,4	12,8	16,1	18,2	18,2	8,1	8,0	9,5	12,2	13,1	14,7	16,5	17,1	19,0	19,2	23,5	1,5	1,5	1,7	1,7	2,0	2,6	2,9	3,3	2,2	2,5	2,6			
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	1,6	1,5	1,5	1,7	1,6	2,3	3,0	4,4	4,3	5,0	5,0	1,8	2,5	2,4	3,0	3,2	4,6	5,4	5,4	6,1	5,1	6,0	0,4	0,8	0,8	0,9	1,0	1,2	1,1	1,5	1,0	0,8	1,2			
Langileen pertsonen kottizazio sozialak aitortzeko	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	26,8	28,1	27,8	43,3	56,1	56,9	60,3	64,0	64,7	67	69,9	0	0,3	0,5	1,2	0,9	0,7	0,9	1,2	1	1	0,8			
Sozialtate-Zergaren aitortzenarako	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	7,0	11,0	11,1	9,5	17,1	11,7	11,6	10,0	12,6	10	10,5	0,1	0,0	0,0	0,4	0,5	0,3	0,2	0,3	0,4	0,2	0,1			
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) aitortzenarako	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	7,2	13,1	11,5	9,5	18,1	10,2	13,0	11,2	13,3	10	10,6	0,1	0,0	0,4	0,5	0,7	0,3	0,6	0,2	0,5	0,5	0,3			
Zerga bereziak eta aduana-eskubideak aitortzeko	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	4,5	4,7	5,2	9,1	8,8	11,1	12,1	10,9	11,9	12	12,4	0,1	0,5	0,5	0,5	0,8	0,7	0,7	1,5	0,8	1,0	0,6			
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,2	0,3	0,4	0,3	0,4	0,7	0,8	1,0	1,4	1,2	1,2	0,6	0,5	0,6	1,0	1,1	1,3	2,3	1,3	1,5	1,9	1,0	0,0	0,2	0,1	0,1	0,3	0,3	0,5	0,6	0,4	0,7	0,5			

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizaritari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

G.1.1.5.a Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2022. %




G.1.1.5.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2022. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

G.4.2 Establezimendu guztien eta 10 lanpostu edo gehiagokoan administrazio elektronikoaren erabileraren ehunekoaren aldakuntza administrazio motaren arabera. EAE. 2021-2022. Δ p.p.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

2. e-Administrazioa lehen sektorean

Lehen sektoreko establezimenduen erdiak baino gehiagok elektronikoki kudeatu zuen BEZa 2022an, 2018an heren batera ere ez zen iristen proportzio hau.³

2012an administrazio elektronikoa erabiltzen zuten establezimenduak % 8,1 ziren; 2015ean, aldiz, % 35,2. Igoera hori hainbat faktorek azaldu zuten.

Lehenengoz, aztertu zen biztanleriaren aldaketak: lehen 17.000 ustiategi eta establezimendu aztertu ziren; 2015ean, aldiz, 6.000, nekazaritza eta abeltzaintza edo arrantza jarduera nagusi zutenak soilik hartu ziren.

Aldaketa horri lotuta, baina bilakaera bera baztertu gabe, nabarmentzen da enpresa horietan Interneten garrantzia 2012an % 16,8 zela, eta 2015ean, aldiz, % 51,1.

2015etik 2018ra, hazkundera garrantzitsua izan zen: % 35,2tik % 85,1era igaro zen establezimendu guztietan, eta % 78,8tik % 98,5era 10 enplegu eta gehiagokoetan.

Administrazio publikoek zenbait prozedura eta izapidetan ezarritako online izapidetzeko nahitaezkotasunak, hirugarrenen bitartezko tramitazioa eta bitartekaritza errazten duten APP-en garapenak aipatutako igoerak justifikatzeko azalpen onargarrienetako bat dira. Horretaz gain, 2018an e-Administrazioaren erabiltzailatzat hartu ziren internautak ez zirenak (hirugarrenen bidez ere izan zitezkeen), eta hori ez zen gertatu 2015ean.⁴


2018tik 2022ra egonkortu egin da hazkundera: % 85,1etik % 83,8ra igaro da establezimendu guztietan, eta % 98,5etik % 92,9ra 10 enplegu eta gehiagokoetan.

Zuzenean izapidetzen duten establezimenduek gora egin dute, 2018ko % 40,9tik 2022ko % 42,4ra, eta ehuneko 5,6 puntu jaitsi dira hirugarrenen bidez izapideak egiten dituztenak.

³ Administrazio elektronikoa erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jaso zen urtea, urte bat beranduago baita. Seriean jauzi baten berri eman behar da, funtsean bi aldaketa metodologikogatik: 2015etik aurrera, jarduera nagusia lehen sektorean egiten zuten establezimenduak soil-soilik ziren inkestaren xedea, aurreko edizioetan ez bezala; edizio horietan, jarduera hori bigarren mailakotzat zeukatenak edo besterik gabe nekazaritza-aktiboak dituztenak ere sartzen ziren. Bestalde, galdetegia moldatu da, administrazio publikoekiko harremana hirugarren bitartez duten establezimenduak kontabilizatzeko.

⁴ 2016ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2015), ez zitzaion administrazio elektronikoa erabilerari buruzko galderarik egin Internetera astean gutxienez behin konektatu ez ziren pertsonen. 2019ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2018) ez zen beharrezkoa Internetera konektatzea e-Administrazioaren erabiltzaile gisa hartzeko.


G.5.1 Lehen sektoreko establezimenduak administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduak, 2022an, 141 ustiatetik osatutako klub murriztua ziren; 10 kasutik ia 9tan (% 87,0) kontratatutako erakundeak erabiltzen zituzten beren administrazioko izapideak egiteko; 2018an baino ehuneko 1,7 puntu gutxiago

G.5.2 Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2022.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

2022an, lehen sektorea batez ere foru-administrazioarekin jarri da harremanetan bide elektronikoa erabiliz: 5 establezimendutik ia 4 (% 78,6). Beste aukerak dira, Administrazio Zentrala (% 55,3) eta Eusko Jaurlaritza (% 45,5). Sektore horretan, alabaina, administrazio elektronikoaren bidez harremanak edukitzeko azken aukerak toki-administrazioa (% 19,3) eta Europar Batasuna (% 5,1) izan ziren.


Azterketa 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduetara mugatuta, ikusten da 10etik 9k izapide elektronikoak proportzio berean egiten dituztela foru-administrazioekin eta Administrazio Zentralarekin. % 90,8; % 79,4k autonomia-erkidegokoarekin eta % 26,2k toki-administrazioarekin.

G.5.3.a. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2012-2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

G.5.3.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko Lehen Sektoreko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2012-2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

TAU 4.c Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoroko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2022. %

	Establezimenduak. Guztira						10 lanpostu edo gehiagokoak					
	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	83,8	45,5	78,6	19,3	55,3	5,1	92,8	79,0	90,6	26,1	90,7	10,2
Informazioa lortzeko	49,0	31,6	42,5	16,5	15,3	1,9	78,8	69,9	69,2	23,7	44,5	5,1
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	40,7	22,4	35,0	8,6	7,3	1,1	81,9	67,4	71,8	21,4	44,4	4,3
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	35,5	20,8	27,5	5,8	5,5	0,9	80,3	62,8	69,9	22,8	45,7	2,8
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	30,0	16,8	21,0	4,2	5,6	0,9	71,0	63,1	52,3	19,6	40,8	1,6
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	7,8	2,7	3,6	1,6	2,0	0,6	19,8	10,9	14,3	11,7	3,8	0,6
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	48,2	-	-	-	48,0	0,2	87,9	-	-	-	87,9	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	25,1	-	22,1	-	3,4	0,1	62,7	-	59,2	-	8,1	-
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	57,8	-	55,3	-	1,9	1,0	83,0	-	79,5	-	7,4	-
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	4,2	-	-	-	3,6	0,6	17,5	-	-	-	16,1	3,7
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	21,5	2,8	14,4	0,5	4,4	1,7	11,2	4,4	6,0	-	1,0	1,2

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS


Lehen sektoreko establezimenduen eta gainerako sektore ekonomikoen arteko aldea murriztu egin zen 2018an administrazio publikoekin elkarrengaitzeko orduan, baina bien arteko aldea handitu egin da berriro 2022an. 2022ko inkestatik eratorritako datuen arabera, lehen sektoreko establezimenduen % 83,8k elektronikoki elkarrengaitzen du, eta % 94k gainerako sektore ekonomikoetan. 2018an, establezimenduak % 93 ziren guztira, eta lehen sektorekoak % 85,1.

% 48,2k Gizarte Segurantzako kotizazioak aitortzen dituzte –2018an baino ehuneko 18,7 puntu gehiago–, eta % 58 inguruk BEZa kudeatzen du –2018ko balioaren ia bikoitza –.

10 enplegu edo gehiago dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako eta arrantzako ustiatzeen egoera oso bestelakoa da sektoreko guztizko datuen maiztasunarekin alderatuta; ekonomiaren beste esparru batzuetara hurbiltzen da. Izan ere, 2022an, lehen sektoreko establezimenduen % 92,8k erabiltzen zuten administrazio elektronikoa, gainerako sektore ekonomikoan, aldiz, % 97,5k.

Gizarte-kotizazioetan eta BEZaren aitortzean, 10 enplegu edo gehiagoko lehen sektorearen estratua ehuneko zazpi puntu handiagoa izan zen gainerako sektoreetako estratu berarekin alderatuta. Ez da gauza bera gertatzen lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko eta zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko: gainerako sektoreen ehuneko hamahiru puntu gehiagok erabili zuten administrazio elektronikoa, lehen sektorearekin alderatuta.

G.4.b Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

3. e-Administrazioa eta administrazio publikoak

Eusko Jaurlaritzarekin harreman elektronikoa duten establezimendu publikoen ehunekoen balioak pandemia aurrekoak dira.

2016an egin zen lehen informazio-bilketa eta laginketa berezia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztietako establezimenduentzat. IKT ekipamenduak, Internetera sartzeko bideak eta merkataritza elektronikoa aztertzeaz gain, administrazio elektronikoari buruzko informazioa bildu zen⁵.

2022an, administrazio publikoen establezimenduak 4.148 ziren, eta horietatik 2.122k 10 enplegu edo gehiago zuten. Ia establezimendu guztiek tramiteren bat edo kontsultaren bat egin zuten Interneten administrazio publikoen atarietan, hau da, % 96,6k; 10 enplegu edo gehiago dituztenak % 97,2.

Establezimendu publiko guztien % 84,5ek informazioa izapidetu edo bilatu zuten Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoarekin, aurreko urteko ehuneko bera. Gainerako administrazioen balioek gora egin dute aurreko urtearekin alderatuta: Administrazio zentrala % 82,7 (ehuneko 12,2 puntuko igoera), foru aldundiak % 71,7 (ehuneko 13,2 puntu gora), toki-erakundeak % 66,2 (ehuneko 6,7 puntu gora) eta azkenik, Europar Batasuneko eta bestelako balioa % 38,5era igo zen (ehuneko 7,6 puntu gehiago).

10 enplegu eta gehiagoko establezimenduen artean 2021tik 2022ra hazkunde handiena foru aldundiak, toki-erakundeak eta Administrazio zentrala izan dute, ehuneko 9, 7,8 eta 7,2 puntuko igoerarekin hurrenez hurren. Beste muturrean daude Eusko Jaurlaritza eta Europar Batasuna, erakunde horietan administrazio elektronikoaren bidezko trafikoa ehuneko 1,2 eta 5,2 puntu igo baita hurrenez hurren aurreko urtearekin alderatuta.

⁵ Eustat. Fitxa metodologikoa.

https://eu.eustat.eus/document/esia_e.html

• Administrazio Zentrala

• Eusko Jaurlaritza

• Foru aldundiak

• Udalak

• Mankomunitateak eta partzuergoak

• Udalerrien elkartzeak eta kuadrillak

• Toki-erakunde txikiagoak

• Erakunde autonomiadunak

• Beste entitate publiko batzuk (Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua)


• Sozietate kapitalaren gehiengoa administrazio publikoarena duten merkataritza-sozietateak

• Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea

• Etxeen zerbitzura lan egiten duten eta irabazi asmorik ez duten fundazioak eta erakundeak, administrazio publikoak baldin badu partaidetzaren gehiengoa.




G.21.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten administrazio publikoko establezimenduen, guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, bilakaera administrazio motaren arabera. EAE. 2021-2022. Δ %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

G.22.a. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2017-2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

G.22.b. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2017-2022.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

2021arekin alderatuta, 4,6 puntu egin du gora beste erakunde publiko batzuekin administrazio elektronikoa erabiltzeko laguntza behar duten establezimenduen ehunekoak.

Administrazio publikoetako establezimenduek hirugarrenen bidez gutxiago erabiltzen dute administrazio elektronikoa gainerako establezimenduekin alderatuta.

Establezimendu publikoen % 22k baino gehiagok hirugarrenen laguntza behar izan zuen administrazio-kudeaketaren bat egiteko, 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen artean balio hori apalagoa da (% 20,4).


G.25 Zuzenean edo hirugarrenen bidez administrazio publikoekin izapideak egin behar dituzten administrazio publikoetako establezimenduak, guztiak eta 10 lanpostu edo gehiagokoak.EAE. 2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

Establezimendu publikoek e-Administrazioa informazioa lortzeko erabiltzen dute gehien bat

G.24 Administrazio elektronikoa erabili duten administrazio publikoko establezimenduak izapideen motaren arabera. EAE.



E-administrazioaren eskaintzari dagokionez, honako hauek izan ziren establezimendu publikoek gehien erabilitakoak: informazioa bilatzea (% 88,9), betetako formularioak itzultzea (% 82,8) eta prozedura baten izapidetze osoa burutzea (% 76,4).

TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017-2022. %

	Guztira						Eusko Jaurlaritza						Foru aldundiak					
	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2017	2018	2019	2020	2021	2022
ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA ERABILI DUTE	92,8	92,1	93,0	89,0	89,9	96,6	83,1	82,9	84,8	76,3	84,5	84,5	64,4	63,0	64,3	59,7	58,5	71,7
Informazioa lortzeko	89,4	89,0	88,5	83,8	80,6	88,9	79,3	78,0	78,8	72,7	70,9	78,0	57,9	56,7	58,0	56,1	51,3	65,2
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	85,8	82,6	81,6	77,9	76,4	80,1	74,5	73,0	72,8	66,0	66,6	70,4	54,5	52,5	51,5	48,0	45,6	52,1
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	79,3	78,7	77,0	72,7	74,0	82,8	67,2	69,9	69,1	61,6	68,6	73,7	47,8	48,9	48,8	44,5	45,0	53,2
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	61,5	69,9	74,3	67,4	69,5	76,4	51,5	59,5	58,9	55,9	57,7	64,9	34,7	37,9	42,5	40,9	40,6	48,8
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	10,8	19,8	26,3	23,8	23,2	26,4	7,1	12,7	17,5	15,0	15,2	18,8	3,7	6,8	8,0	6,6	5,6	4,8
Langileen pertsonen kotizazio sozialak aitortzeko	50,3	50,1	56,7	53,9	53,5	64,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Sozietate-Zerga aitortzeko	24,8	27,2	30,0	29,9	30,8	32,0	-	-	-	-	-	-	-	-	24,0	24,4	22,6	25
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) aitortzeko	29,2	32,4	36,6	35,7	37,3	49,8	-	-	-	-	-	-	28,1	28,5	31,2	30,2	32	44
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak aitortzeko	4,9	6,8	9,2	8,4	8,3	10,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	8,6	7,7	7,4	13,0	7,9	10,0	5,6	4,2	3,7	11,2	6,5	7,2	2,9	3,5	3,4	2,9	1,8	2,2

TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017-2022. % (Jarraip.)

	Toki-erakundeak						Administrazio zentrala						Europar Batasuna eta beste batzuk					
	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2017	2018	2019	2020	2021	2022
ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA ERABILI DUTE	53,0	60,4	61,7	56,1	59,5	66,2	67,8	69,3	72,3	69,4	70,4	82,7	38,4	34,1	36,9	29,8	30,9	38,5
Informazioa lortzeko	49,0	54,9	57,7	52,9	54,8	61,7	55,3	53,9	57,1	53,7	53,5	61,8	31,5	26,9	31,3	24,7	25,3	36,0
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	36,9	41,6	45,5	38,5	42,9	46,5	47,2	44,9	48,1	47,0	46,0	55,6	25,4	24,6	25,4	19,7	19,7	30,6
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	29,3	35,0	39,3	35,9	42,9	47,4	42,4	42,6	45,1	44,9	44,9	55,5	20,5	19,9	22,6	17,4	19,6	28,7
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	16,9	20,5	22,8	22,5	27,8	28,8	32,7	34,7	38,4	39,7	37,8	51,1	14,8	16,2	16,7	14,0	14,6	12,6
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	1,3	4,8	5,0	3,8	4,4	4,0	3,1	9,0	12,0	11,9	9,0	10,1	1,1	4,6	5,0	4,1	2,8	2,5
Langileen pertsonen kotizazio sozialak aitortzeko	-	-	-	-	-	-	48,4	49,9	56,3	53,7	53,5	64,3	1,9	0,2	1,5	0,6	0,7	0,8
Sozietate-Zerga aitortzeko	-	-	-	-	-	-	2,1	3,6	6,0	8,2	6,8	7,9	0,0	0,0	0,3	0,0	0,0	0,2
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) aitortzeko	-	-	-	-	-	-	1,5	4,1	5,7	6,3	6,4	6,8	0,0	0,1	0,3	0,0	0,0	0,2
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak aitortzeko	-	-	-	-	-	-	4,6	6,8	8,9	8,3	8,3	9,7	0,2	0,0	1,0	0,1	0,5	0,3
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,0	2,7	2,8	3,2	4,1	0,4	4,0	3,8	3,3	3,6	4,3	5,2	0,3	0,6	0,7	0,5	0,3	1,2

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

Hazkunderik handiena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) aitortpenak izan du, 2021ean baino ehuneko 12,5 puntu gehiago; halaber, azpimarratzekoa da ehuneko ia 7 puntuko gorakada izan zuela administrazio prozeduraren bat modu erabat elektronikoa izapidetzeak.

Oraindik ere agerikoa da erakunde mota edozein izanda ere, izapidetzen den jarduera ohikoena informazio bilaketa dela: balio handiena Eusko Jaurlaritzan (% 78,0) eta baxuena Europar Batasunean eta beste administrazio batzuetan (% 36,0). Urteko aldakuntza desberdina izan zen erakundearen arabera: Foru aldundiek ehuneko 13,9 puntuko hazkundera izan zuten, toki-erakundeek, aldiz, 6,9 puntuko.

Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da gainerako erakundeekin alderatuz inprimaki eta formularioak deskargatu (% 70,4) eta horiek administrazioetara itzultzeari (% 73,7) dagokionez. Beste muturrean dauzkagu Europar Batasuna eta bestelakoak, ehuneko horiek % 36,0 eta % 30,6ko balioetara jaisten baitira.

Izapidetze osoa elektronikoki egitearen kasuan nabarmentzekoa da erakundeen % 64,9k Eusko Jaurlaritzarekin egiten duela, % 51,1ek Administrazio zentralarekin eta % 48,8k foru aldundiekin, aldiz, % 28,8k baino ez du egiten toki-erakundeekin egitea. 2021etik 2022ra bitartean gorakada handiena (ehuneko 13,3 puntu) Administrazio zentralari dagokio, ondoren, foru aldundiei (8,2) eta Europar Batasuna da beheara egin duen bakarra (ehuneko 2 puntuko jaitsiera).

Langileen kotizazioen aitortpena erakundeen % 64,8k egiten du, eta azken urtean ehuneko 11,3 puntu igo da.




Europar Batasunarekin eta beste administrazio batzuekin, alde batetik establezimendu publikoen % 38,5ek informazioa jaso edo izapideak egiten ditu, bestalde, % 12,6k baino ez du prozedura bat osorik izapidetzen, 2021eko balioak baino 2 puntu gutxiago.

4. e-Administrazioa eta pertsonak

2023an, EAEn bizi ziren 16 eta 74 urte bitarteko ia % 64ak administrazio elektronikoa erabili zuten, 2009an halako bi.

EAEn bizi diren 16-74 urteko 1.029.800 pertsonak, hau da, guztien % 63,9k, erabili zuten administrazioek herritarrekin elkarreragiteko eskaintzen duten baliabideren bat azken 12 hilabeteetan (2022ko eta 2023ko lehen hiruhilekoen artean).

G.6 Azken 3 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. (2016-2023, azken 12 hilabeteetan) Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2023. Milakoak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

2005az geroztik, administrazio elektronikoaren erabiltzaileen kopurua internauten kopurua baino gehiago hazi zen. Joera hori 2010 eta 2011 bitartean hautsi zen, erabiltzaileen kopurua % 2 soilik igo baitzen, eta internautena, aldiz, % 8,4. 2011 eta 2012 bitartean, hazkundera internauten % 1,7ra murriztu zen, hots, 2003az geroztik gehikuntza txikiena izan zen. Gertaera horrek, krisi-egoerarekin batera, hein batean azaldu dezake zergatik jaitsi zen % 4,3 administrazio publikoekin harremanetan jartzeko Internet erabiltzen zuten pertsonen kopurua.


2014 eta 2015 bitartean, internauten kopuruak gora egin zuen —80.000 gehiago—, eta, horrekin batera, e-Administrazioaren erabiltzaileen kopurua % 18,6 hazi zen.

2016an eta 2017an, aldiz, erabiltzaileen kopurua jaitsi egin zen, baina laginen aldaketa metodologikoen ondorioz; beraz, ez da aintzat hartu behar.


Bilakaera desitxuratu horrek ez du galarazten «Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak» biltzen dituen ezaugarri batzuen joerak eta banaketak aztertzea.

2022etik 2023ra bitartean e-Administrazioaren hazkunde absolutua 55.600 erabiltzailekoa izan zen. Internauten kopurua % 1,3 igo zen eta administrazio elektronikoaren erabiltzaileena % 6,5.

G.7 Azken 3 hilabetetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. (2016-2022, azken 12 hilabetetan) Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2023. %



G.8 Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleen eta azken hiru hilabeteetan administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. EAE. 2003-2023. Δ%



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak – IGIF


Sexuaren arabera internauten eta administrazio elektronikoa erabiltzen dutenen ehunekoen artean, gorabehera handiko aldiak egon arren, 2006 eta 2013 artean alde hori murrizteko joera mantso eta argia egon zen.

Azken urte horretatik aurrera, internauten eta erabiltzaileen genero-arrailek murrizteko joera argia erakutsi du.

Muga 2017an gainditu bazen ere, 2020an handitu egin zen internauta gizonen eta emakumeen arteko alde absolutua: aipatutako lehen urtean 6.400 emakume internauta gehiago zenbatu ziren gizonak baino, 2022an 40.800 gehiago eta 2023an 38.600 gehiago.


Administrazio elektronikoaren erabilerari dagokionez, hainbat gorabehera tarteko, datu serieraren hasieratik eta 2017 urtera arte genero arraila 2 puntu negatibo pasatxokoa zen emakumeen kaltetan, 5 baino gehiagokoa Internet erabiltzaileen kasuan. 2018tik aurrera emakume eta gizon erabiltzaileen tasek berdintzerako joera erakutsi zuten, eta 2019tik aurrera emakumeak gehiago izan dira administrazio elektronikoaren erabileran; aurtengoa, ordea salbuespena izan da -1,1 balioa ageri baitu.

G.12.a Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten 16-74 urte bitarteko biztanle internauten genero-arraila. Joerak. EAE. 2003-2023. p.p.%




Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.12.b 16-74 urte bitarteko internauten eta administrazio elektronikoa erabiltzen dutenen arteko aldea sexuaren arabera. EAE. 2003-2023. Milakoak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.1.2.3. Administrazio Elektronikoa azken hiru hilabeteetan (***) erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak, erakunde motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa 2017-2023. %



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Inkestaren beste ezaugarri garrantzitsu bat herritarrek elkarreragiten duten administrazio motan datza, azken urteotan nolabaiteko egonkortasuna ageri du: 2023an e-Administrazioa erabiltzen duten lau pertsonatik hiruk, % 75,3ak, Eusko Jaurlaritzarekin eta bere ingurune instituzionalarekin⁶ egiten dutela; hau da, 775.800 pertsonak, 2022an baino 45.400 pertsona gehiagok.

Foru-aldundiekin erabiltzaileen %48,8 aritu da, 502.400 erabiltzaile. 2022ko datuekin alderatuta, administrazio elektronikoa erabiltzen duten erabiltzaileen ehunekoa handitu zuten erakunde bakarrak izan ziren (% 12,3 gehiago).

Toki-erakundeek % 19,9 lortu dute, 204.900 pertsona daude eurekin harremanetan elektronikoki.

Administrazio zentralak e-Administrazioko erabiltzaileen % 23,1 biltzen ditu, hau da, 238.200 pertsona.


Europar Batasunak eta beste administrazio publiko batzuek % 1,6 biltzen dute, hots, 16.000 erabiltzaile.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoren batera Internet bidez formularioak bidali zituzten biztanleen % 4,3k hirugarren pertsonen bidez egin zuten, 2022an baino ehuneko 1,3 puntu gehiago.

⁶ Eusko Jaurlaritzan sartzen dira haren erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, enpresa-Gsektore publikoa, partzuergoak, fundazioak eta abar.

Ezagutza-maila, erabilera-maiztasuna eta fideltasuna zenbatesteko, Eustaten inkestak bestelako informazio osagarria ere ematen du: inkestatutakoek bisitatu eta gogoratzen dituzten webguneak⁷.

G.14 Administrazio elektronikoaren erabiltzaileak (formularioak bidaltzea), erabileraren arabera, zuzena edo hirugarrenen bitartez. EAE. 2022-2023 %



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Alde batetik, azpimarratu behar da 2022an (edozein motatako webguneei)⁸ egindako aipamen guztien % 4,1 edozein administrazioen atari publikoei dagozkiela; aurreko urtearekin alderatuta apenas aldaketarik ez da egon.

Edozein espazio-eremutako atari publikoei egindako lau aipamenetatik hiruk— % 75,4— euskal administrazioei eta sektore publikoari dagozkio; ehuneko 1,5 puntu gutxiago aurreko urtearekin alderatuta.

Oro har, EAEko administrazioen eta sektore publikoaren webguneei egindako aipamenak soilik aintzat hartuta, ikusten da % 52,2 EAEko administrazio orokorraren, haren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen webguneei dagozkiela, aurreko urtea baino ehuneko 2,1 puntu gutxiago. Kopuru horretatik, % 35,0 euskadi.eus webguneari eta hari lotutako atariei dagozkie; %17,2, berriz, erakunde autonomoei eta sozietate publikoei.

EAEko atari publikoen aipamenen % 7,1 Foru-aldundien atarienak dira, udalerrikoena % 4,3 eta Unibertsitate publikoarena (EHU) % 1,5.


2022 urtearekin alderatuta, ehuneko 0,1 puntu egin dute behera Eusko Jaurlaritzaren atarien aipamenek, aldiz, 7,3 hazi dira erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen aipamenek.

⁷ IGIFen galdeketan, bisitatutako azken 5 webguneak biltzen dira, inkestatutako uneari dagokionez. 2015az geroztik, lehen hiruhilekoan, azken 3 hilabeteetan Internetera konektatu diren pertsonen erantzuten dute.

⁸ Guztizko kopurutik ezabatu dira gizarte-sareei (Facebook, Twitter, YouTube), bilatzaileei (Google, Yahoo...) eta bat-bateko mezularitzari (WhatsApp) buruzko aipamenak, zeinak bildutako guztien % 51,9 izan baitira 2019an.


Foru-aldundien kasuan ehuneko 0,9 puntu jaitsi dira aipamenak eta 2,3 igo udalen atarientak.

G.9. 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten webgune publikoen aipamenak administrazio-motaren arabera. EAE. 2005-2023. Milakoak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF

G.10 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten EAEko webguneen aipamenak. 2005-2023. Milakoak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF

5. E-ADMINISTRAZIOKO TERMINOEN GLOSARIORAKO ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO ESTADISTIKETARAKO ESTEKAK

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN KONTZEPTUEN GLOSARIOA](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [ZERBITZU PUBLIKO ELEKTRONIKOEN GAINEKO ESTADISTIKA ESPE](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN BAROMETROA. BEA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA. FAMILIAK.IGIF](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN INKESTA - ENPRESAK. IGIE](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN INKESTA ADMINISTRAZIOAN. IGIA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA - LEHEN SEKTOREA.IGILS](#)

[BESTE ITURRI BATZUK](#)